

GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2021/22 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

Gradu Amaierako Lana

Izenburua

Elikadura jasangarria (titulu zehatza ikaslearen eta irakasle arduradunaren artean adostuko da)

Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Arabako Campuseko Azoka Agroekologikoa campuseko IRI eta AZPek osatzen dute, egungo elikadura ereduaren ondorioez kezkatuta. Elikadura eredu honek baliabideen kontsumo eta kutsaduragatik, ekonomikoki sortzen dituen desberdintasunengatik eta sozialki dakartzan arazo dietetikoengatik, besteak beste, ingurumenari dagokionez jasanezina da.

Gai hauen inguruan unibertsitate komunitatea sentsibilizatzeko, lauhileko bakoitzean Azoka bat antolatzen dugu, bi gunerekin. Lehenengoa, elikadurarekin zerikusia duten elkarteek parte hartzen dute, egiten dituzten jardueri buruzko informazioa emateko. Bigarren gunea hitzaldiena da eta jendea bertaratzen da espezializatuta dauden gaiari buruz azalpenak ematea eta eztabaidatzea.

Azoka elikadura eredu nagusiak sortzen dituen arazoak erakusteko eta dauden ekimen alternatiboak ezagutzeko baliabidea da. Guzti hori ikuspegi praktiko batetik egiten da, gure ingurune hurbileko elikadura-arazoak kontuan hartuta eta benetako arazoak ezagutzen dituzten elkarteekin harremana mantenduz.

Azokan hainbat Fakultate eta Saitetako irakasleek parte hartzen dute, elikadura jasangarriaren hainbat alderdirekin zerikusia duten GAL edo MAL zuzentzeko interesa dutenak. Adibide gisa jarraian landutako zenbait gai jasotzen ditugu: elikagaiak merkaturatzeko ereduak, bidezko merkataritza, dieta jasangarriak, elikagaien ekoizpenak eta merkaturatzeak ingurumenean duen eragina, trantsizio ekologikoko prozesua eta inpaktu ekonomikoa eta abar.

Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

GALren gaiarekiko interesa/konpromisoa, espediente akademikoa eta aztergaian alde aurretik izandako esperientzia baloratuko dira.

Campusa

Arabako Kanpusa

Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

Letra fakultatea

Titulazioa

Geografia eta Lurralde Antolamendua

Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza

Euskara /Gaztelania

Irakasle arduraduna

Juan Cruz Alberdi Collantes

Posta elektronikoa

Juancruz.alberdi@ehu.eus

Campus Bizia Lab (CBL) proiektua

Azoka agroekologikoa Arabako Campusean

CBL proiektuaren webgunea

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/azoka-agroekologikoa-arabako-campusean>